J. MIRANDE
106, Bd DAVOUT
Paris XX

1957. 4. 2

Adiskide maitea,

Zure olerki-lana « Lau Kantari eta Xori bat », Zurgin Zaharra anteerkitik hartua, hartu berri dut, eta eskerrak dauzkizut igorri dautazulakotz. Atseginekin irakurri dut ; zoritxarrez, iduri guztien arabera, ezin joanen naiz Donibanerat delako antzerkiaren ikhustera, bainan, behar bada, behin Parisen emanen dute hemengo euskaltzaleek !

Ikhusten dut orai nahas-laphurtarrez izkiriatzen dituzula zure lanak. Nik ere « gipuzkera osotua » utzixea dut, eta Villasante Aitaren ideiek hartaraturik, azken urthe hauietan « laphurtar klasikoz » egin ditut ene idazlanik gehienak. Dena dela, aspaldi

hortan ez dut deusik ondu: ama eri izan dut, eta bertzalde, zailtasun bereziak izan ditut - eta ditut oraino - ene langintzan; ez dut beraz kultura lanerako asti ez eta gogo handirik. Hala ere, lan labur zenbait idatzi nahi nituzke Euzko Gogoa-rako eta Egan-erako.

Berriz ere ene eskerrona zuri agertuz, egoiten naiz

zure zerbitzuko

Jean Mirande